



BEHAKETA-JARDUERA: Erantzun marrazki bidez

Behatu honako irudi hauek eta saia zaitez beldar horren irudiak egiten. Baina adi, irudia osatzerako orduan baldintza bat izango baituzu: zure irudiaren bidez hurrengo galdera hauei erantzuten saiatu:

GALDERAK:

- **Nola mugitzen da beldar hau?** Hanken bidez, igerian, hegan egiteko hegoak ditu...
- **Zer zentzumen dituela esango zenuke?** Identifika dezakezu zentzumen-organo bakoitza? Hala bada, marraz itzazu.
- **Beldarra laztanduko bazenu, nolakoa izango litzateke bere azala?** Leuna, likatsua, iletsua, zurruna, latza... Saia zaitez zure irudiak ere halako itxura izan dezan lortzen.
- **Nola uste duzu elikatzen direla beldarrak?**
- **Zer tamainatakoa da?** Saiatu errealitateko zerbaitekin konparatzen: borragoma batekin edo txanpon batekin, adibidez.
- **Zenbat gorputz atal identifika ditzakezu beldarrean?**
- **Emea edo arra den identifikatzerik duzu?**
- **Koloreari dagokionez, zer koloretako margo edo arkatza erabiliko zenuke?**



BEHAKETA-JARDUERA: Erantzun marrazki bidez

Behatu honako irudi hauek eta saia zaitez beldar horren irudiak egiten. Baina adi, irudia osatzeko orduan baldintza bat izango baituzu: zure irudiaren bidez hurrengo galderei erantzuten saiatu.



Irudiak Wikimedia commons-etik hartu ditugu.
search=papilio+machaon&title=Special:MediaSearch&go=Go&type=image



BEHAKETA-JARDUERA: Erantzun marrazki bidez

Orain bai, marrazteko ordua iritsi da. Marraztu beldar bat eta saia zaitetz lehen aipatutako galderei marrazkiaren bidez erantzuten.



BEHAKETA-JARDUERA: Erantzun marrazki bidez

Marrazkia amaitu ondoren, hausnartu dezagun marrazki bidez. Saia zaitez beldarra metamorfosiaren ondorioz bihurtu den tximeletaren marrazkia egiten. Horretarako, honako galderari erantzuten saiatu beharko duzu marrazki bidez:

- **Beldar hau egunen batean tximeleta eder bihurtuko da. Beldarraren itxuran erreparatuta zer koloretako tximeleta bihurtuko dela esango zenuke?**
- **Zenbat hanka izango ditu tximeletak?**
- **Beldarraren tamainarekin alderatuta zer tamaina izango du tximeletak?**

Marraztu duzun beldarra Makaon tximeleta (*Papilio machaon*) baten beldarra da. Nahi baduzu, begiratu tximeleta honen irudiei eta ikusi ea marraztu berri duzun tximeletaren antzik duen!